



HAUR HEZKUNTZA

6. modulua: Eskola Gaitasunak eta Curriculum II

MODULUKO IRAKAS-GIDA

2020-2021

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Testuingurua.....	3
3. DALaren antolamendua.....	3
4. DALaren garapena	4
5. DALaren ebaluazioa	6
6. Lan honen bidez landuko diren gaitasunak	8
7. DALa ez egiteko salbuespenak	9
1. eranskina: Fitxa/eredua	10
2. eranskina: Lan idatziaren ebaluaziorako errubrika	11

1. Sarrera

Haur Hezkuntzako curriculumak finkatzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza mota hau ezartzen duen abenduaren 22ko 237/2015 Dekretuak, (EHAA 9zk., 2016ko urtarrilaren 15ekoa) bere 7. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Haur Hezkuntzan "haurren bizipenak dira hezkuntza-planteamenduaren funtsa, eta, ondorioz, bizipen- edo esperientzia-eremuetan egituratzen dira hezkuntza-proposamenak". «Norberaren nortasunaren eta ingurune fisiko eta sozialaren eraikuntza» eta «Norbere nortasunaren eta komunikazioaren eraikuntza eta irudikapena» esperientzia-eremuen bidez, oinarrizko diziplina-kompetentzia landuko dira:

- a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.
- b) Matematikarako kompetentzia.
- c) Zientziarako kompetentzia.
- d) Teknologiarako kompetentzia.
- e) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
- f) Arterako kompetentzia.
- g) Kompetentzia motorra.

Aldi berean, Dekretuaren Eranskinean, curriculumak osatzen duena, adierazten da "adin horretako haurrek errealitatea ulertzeko duten moduak oinarrizko kompetentzia guztien, zehar-kompetentzien eta kompetentzia espezifikoen" garapena baldintzatu egiten duela. (237/2015 Dekretua. EHHA 9 zk., 2016ko urtarrilaren 15ekoa, 47 orr.). Haur Hezkuntzako lehen zikloan (0-3 urte), gorputza da mundua arakatzeko eta esperientziak izateko abiapuntua. Prozesu horretan, non errealitatea ulertzeko oinarriak eta erreferentzia-esparrua eraikitzen diren, bere nortasun soziala deskubritzen du haurrak, eta komunikaziorako modu askotarikoak lantzen ditu. Jolasa eta esperientziazioa dira garapeneko eta ikasteko prozesuaren ardatza eta motorra.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan (3-6 urte), jolasarekin eta esperientziazioarekin batera, haur-ipuak eta haurren narrazioak eta elkarrizketak dira garapeneko eta ikasteko prozesuaren ardatza eta motorra, ahozko hizkuntzaren bidezko komunikazioa hobetuz.

Haur Hezkuntzako Gradu 3. mailan arreta berezia eskainiko diegu ikasleen prestakuntza integralerako oinarrizkoak diren **hezkuntza baliabideei**. Hala, 5. moduluko Diziplinarteko Lanean "ipuinak" landu genituen, eta **6. moduluko DALean "jolasei" eskainiko diegu arreta.**

2. Testuingurua

6. modulua, "Eskola Gaitasunak eta Curriculumuma II", Haur Hezkuntzako Gradu 3. mailako bigarren lauhilekoan egiten da.

Moduluko Diziplinarteko Lanak (DAL) 3 kreditu balio ditu eta irakasgai hauekin dago lotuta:

- Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika (6 kr.)
- Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan (6 kr.)
- Musika Adierazpenaren Garapena II (6 kr.)
- Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza (5+4= 9 kr.)
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (9 kr.)

3. DALaren antolamendua

DALaren antolamenduak honako arau hauei jarraituko die:

a) Ikasle guztiek egin beharko dute DALa (ikus 9. orrialdeko salbuespenak).

b) Lana egiteko ikastaldeak ikasleek antolatuko dituzte, lauhilekoko 3. Astean, eta 5-6 ikaslez osatutakoak izango dira. Talde bakoitzari tutore bat esleituko zaio; tutoreak DALarekin lotutako irakasgairen bateko irakaslea izan beharko du. Oro har, lana egin bitartean 3 tutoretza-saio egingo dira, eta beste saio bat lana amaitutakoan, lanaren ebaluazioari buruzko gaiak lantzeko.

c) Ikasleek gutxi gorabehera 75 lanordu beharko dituzte DALa egiteko (horietako 30 ordu presentzialak); beraz, 3 kredituko balioa du, eta 3 fasetan egingo da:

Lehenengo fasean (3. asteen, aste magistrala) ikasleek 20 ordu presentzial erabiliko dituzte (4 ordu irakasgai bakoitzeko) lanaren aurkezpena entzuteko eta lanean hasteko. Ordu horiek lantaldeak egiteko ere izango dira. Horrez gainera, irakasgai bakoitzetik lanari egin dakioken aportazioari

buruzko jakingarriak eskainiko dituzte irakasleek. Aste horren amaieran, lanaren zirriborroa emango zaio tutoreari.

Bigarren fasea martxoan gauzatuko da. Aste horiek DALa egiteko erabiliko dira, bertaratu gabeko orduetan, eta tutoreekin derrigorrezko bilerak egingo dira, ikasleek izan ditzaketen DALari buruzko zalantzak argitzeko.

Hirugarren fasean, talde bakoitzak egindako lana aurkeztu beharko du ikasgelan (martxoaren 29etik 31ra, 25. astea) ikastordu presentzialetan. Aurkezpenak egiteko egutegia eta ordutegia irakasleekin adostuko da, eta derrigorrezkoa da lantalde osoa bertaratzea. Ondoren, azken tutoretza saioan (tutore bakoitzak bere taldearekin adostuko du), lanaren azken ebaluazioa egingo da.

4. DALaren garapena

Modulu honetan egin beharreko lanaren izenburua **“Haur Hezkuntzako ikasgelako jolasak”** da. Diziplinarteko jolas multzo bat prestatu behar da; alegia, jolas bakoitzak modulu honi dagozkion irakasgai batzuetako (bi-hiru) edukiak lantzeko aukera eman beharko du.

A. Idatzizko lanaren atalak:

1. Oinarri teorikoak.

Talde bakoitzak atal teorikoa onduko du (3-4 orrialde), jolasaren balioa azalduz. Atal honetan gutxienez bost erreferentzia aipatu beharko dira (APA arauen arabera erreferentziak egoki eginez).

2. Jolasen justifikazioa.

Behar bezala justifikatuko da jolasen aukeraketa, jolasak haurren adinarekin, hezkuntza-balioekin eta curriculumeko gaitasunekin duen lotura oinarritzat hartuta.

Jolasen proposamena HHko ikasgela baterako (errealala ala simulatua) egokituko da. HHko bi zikloetarako jolasak aurkeztuko dira (gutxienez jolas bat HHko 1. ziklorako). Ikasle talde bakoitzak bost jolas aukeratu eta deskribatu beharko ditu. Jolasek mota desberdinetakoak izan beharko dute (marko teorikoarekin koherentzia erakutsiz), eta denek balio behar izango dute Haur Hezkuntzako curriculumeko gaitasunak lantzeko. Gainera, hautatutako jolas multzoak moduluko 5 arloetako edukiak landu direla bermatu behar du, beti ere kontuan izanik jolas bakoitzarekin bi-hiru

irakasgaitako edukiak landuko direla, disziplinartekotasuna bermatuz¹.

3. Jolasen txostena (1. eranskinean dagoen fitxa erabilia).

Bost jolasen arteko batek lotura izan behar du ingelesaren ikaskuntzarekin, eta dagokion fitxa ingelesez idatziko da.

Jolasaren deskribapena behar bezain zabala izango da. Horrez gainera, honako aspektuak hauek zehaztu beharko dira: jolasak dituen aukera didaktikoak, esaterako, zer egoeratan erabil daiteken, non eta noiz, zer haur talderekin, zeintzuk diren erabili daitezken materialak, etab. Jolasak dokumentatua egon behar du (eta dagokion erreferentzia eman beharko da; onartuko da Practicum-ean ikusitako jolasen bat (edo asmatutakoa), baina kasu horretan aukerak ondo oinarrituta egon beharko du.

4. Azken hausnarketa.

Atal honetan, egindako lanari buruzko hausnarketaren berri emango da. Honako gai hauek jorratu beharko dira:

- Jolasen eta jolasaren balioen inguruan ikasitakoa, irakasgai ezberdinak kontuan hartuta.
- Diziplinartekotasunaren garrantzia.
- Jolasak hautatzean kontuan hartu beharreko alderdi metodologikoak.
- Etorkizun profesionalerako ekarpena...

Hori guztia ondo oinarrituta eta erreferentziatuta egon behar da, eta balorazio subjektiboak ekidin behar dira.

B. Aurkezpena

Martxoaren azken astean (martxoaren 29etik 31ra, 25. astean), talde bakoitzak aukeratutako jolasei buruzko aurkezpena egingo du beste taldeetako ikaskiden aurrean (tutoreaz gain beste irakasleren bat ere egon daiteke saio honetan). Aurkezpenean, lanak Haur Hezkuntzako gelarekin duen erlazioa eta Moduluko ikasgaiekin duen lotura azpimarratu beharko da. Horrez gain, talde bakoitzak jolas bat aurkeztu edota antzeratuko du, modu praktikoan. Aurkezpen osoa gehienez 20 minutukoa izango da.

C. Ebaluazioa

¹ Ikasleren bat hiru edo lau irakasgaitan soilik baldin badago matrikulatuta, irakasgai horiek bakarrik hartuko ditu kontuan lana egiteko, baina prestatu beharreko jolas-kopurua bera da.

Taldeak, apirila bukatu baino lehen, azken txostena entregatuko dio tutoreari (azken eguna: apirilaren 30a). Lana baloratu ondoren, talde bakoitzak tutoretza bat izango du bere tutorearekin, hobetu daitezkeen alderdiak ezagutzeko.

Aurkeztutako lanek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Aipatzen diren erreferentzia bibliografikoak akademikoak izango dira.
- Lotura argia izan beharko da lanaren atal teorikoaren, jolasen eta azalpenen artean.
- Justifikatu behar da nola edo zein irakas-estrategien bidez landuko diren jolasekin lotutako helburuak eta edukiak eta nola bideratuko den ikaskuntza-prozesua.
- Jolasak bilatzeko, jolas-bildumak edo antzekoak erabili behar dira.
- Jolasak hautatzeko irizpideak justifikatu behar dira eta, jolasak asmatuak direnean, sortzeko irizpideak azaldu behar dira.

5. DALaren ebaluazioa

DALa diziplina arteko lana da, eta ikasle guztiek derrigorrez bete behar dute. Lanaren ebaluazioa jarraitua izango da, eta honako hauek hartuko dira oinarritzat:

- Lan idatzia, adostutako datetan entregatuko dena.
- Egindako lanaren ahozko aurkezpena.
- Moduluko astean (3. astea) entregatu beharreko lanaren lehen zirriborroa.

DALari eskaini beharreko denbora eta kalifikazioa 2. Lauhilekoko irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruaren %10a.

Tutoreak baloratuko ditu ikasgelan egindako aurkezpena eta taldearen azken txostena, portzentaje hauen arabera:

Azken txostena (% 60) (2. eranskineko errubrika erabilita)

Aurkezpena (% 30)

DAL astean entregatu beharreko lanaren lehen zirriborroa (%10)

OHARRA: DALeko lanean plagio guztizkoa edo partziala aurkitzekotan, lanaren nota 0 izango da automatikoki.

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez gero, ikasleak jarraikako ebaluazio-sisteman parte hartu ezin badu **justifikatutako arrazoiengatik** (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DALarekin lotutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, horretarako zehaztuko den datan (beti azterketen garaiaren lehenengo astean). Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion bera izango da, hau da, 2. lauhileko honetan irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruaren %10a. Kasu horretan aurkezpenak DALaren azken notaren %30 balioko du, eta txosten idatziak %70.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan 24. astea baino lehen, lana planifikatzeko (idatzizko lana entregatzeko data, aurkezpena egiteko data); lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Ohiko deialdian DALa gainditzen duten ikasleei ez-ohiko deialdira arte gordeko zaie nota. Ohiko deialdian DALik egiten ez duten ikasleek, edo egin bai, baina gainditzen ez dutenek, ez-ohiko deialdian izango dute bigarren aukera, horretarako zehaztuko den datan (beti azterketen garaiaren lehenengo astean). Kasu horretan dauden ikasleek ohiko deialdian ebaluazio jarrairik egin ez duten ikasleek izandako ebaluatzeko modu bera izango dute.

GARRANTZITSUA: DALaren nota ez da gordetzen urte batetik bestera. Beraz, aurreko urtean lana eginda eta gaindituta daukan ikasleak hiru ikasgai edo gehiago suspenditzen baditu, eta hurrengo urtean gutxienez 3. mailako hiru ikasgaitan matrikulatuta badago, berriz egin beharko du DALa.

6. Lan honen bidez landuko diren gaitasunak

Soinuak eta musikak haur jolasak egiteko eta dinamizatzeko eskaintzen dituzten aukerez ohartzea. Musika parametro desberdinak (altuera, erritmoa, intentsitatea, tinbrea, etab.) edo musika piezaren elementuak (egitura, forma, instrumentazioa, etab.) hartu behar dira kontuan.	Musika
Ikasleen adinarekin eta proposatutako jolasarekin bat datozen musika baliabide desberdinak erabiltzea eta hautatzea: haurren abestiak, prosodia, gorputz perkusioa, mugimenduak eta koreografiak, material eta objektu soinudunak (kotidiafonoak, jostailu soinudunak, musika tresnak...), etab.	Musika
Imitazioa, inprobisazioa eta sorkuntza erabiltzea jolasak hautatzeko eta Haur Hezkuntzara egokitzeko.	Musika
Atzerriko hizkuntzen aldeko jarrerak sustatzea.	Hizk. Didak. eta Atz. Hizk.
Matematikak edozein jolasetan duen garrantziaz ohartzea.	Matematika
Haurrek literaturaz goza dezatela sustatzea.	Hizk. eta Lit. Didak.
Literatura baliabideak erabiltzea alderdi ludikoa, adierazlea eta sortzailea nabarmentzeko.	Hizk. eta Lit. Didak.
Ingurunearekiko eta naturako fenomenoekiko jarrera positiboak sustatzea (errespetua, interesa, jakin-mina, etab.).	Z. Esp.
Natura inguruneke elementuak erabiltzea/identifikatzea.	Z. Esp.
Ikasgelan egindakoari buruzko taldeko hausnarketa egitea, irakasleen lana eta etorkizunean izan dezaketen jarduera profesionala berritzeko eta hobetzeko.	Zeharkakoa
Jolasak diziplinarteko irakaskuntzarako baliabide gisa eskaintzen dituen aukerez ohartzea.	Zeharkakoa
Haurren lana antolatzerara eta ebaluatzerara bideratutako jarduerak (jolasak) denen artean planifikatzea.	Zeharkakoa
Jolasa erabiltzea haurren komunikazio trebetasunak garatu ahal izateko.	Zeharkakoa

7. DALa ez egiteko salbuespenak

1. Mugikortasun programetan dauden ikasleek ez dute DALa egin beharko, modulu oso batean matrikulatuta dauden ikasleen kasuan izan ezik.
2. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute modulu honetako 3 irakasgaitan (gutxienez) matrikulatuta badaude. Bestela, ez dute halakorik egin beharko.
3. Ikasleak DALa egitetik salbuetsita dauden kasuan, irakasgaiaren kalifikazioa 10etik egingo da, DALari dagokion portzentajea aplikatu gabe.
4. Irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe izateagatik aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek DALa behin bakarrik egin beharko dute (irakasgai gehien dituzten modulukoa). Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua berdina bada, goragoko mailako moduluari dagokion DALa egin beharko dute.

1. eranskina: Jolas bakoitza deskribatzeko fitxa/eredua

JOLASA DESKRIBATZEKO FITXA	
Ikasle taldea (izen-abizenak)	
JOLASAREN IZENA	Jolas mota
Deskribapena	
Hautaketaren justifikazioa, jolasaren hezkuntza balioa oinarritzat hartuta	
HHko curriculumarekin erlazioa (zikloak, arloak... dekretuaren arabera)	
Zerikusia duten arloak eta horietako bakoitzean landu beharreko edukiak	
Aukera didaktikoak (espazioa, unea, materialak, parte-hartzaileak, etab.)	
Erabilitako iturriak (Nondik atera duzue? Bibliografia, internet, tradizioa, etab.)	

2. eranskina: Lan idatziaren ebaluaziorako errubrika

Ebaluatutako alderdia	Bikain	Ongi	Nahikoa	Gutxiegia
Terminologia, ortografia eta gramatika	Maila handiko terminologiaren erabilera eraginkorra, eta zuzentasun osoa ortografian, puntuazioan eta gramatikan, Euskaltzaindiaren arauak errespetatuz. (2)	Terminologiaren erabilera egokia. Oro har, lana zuzen idatzita dago, nahiz eta tarteka akatsen bat edo beste egon ortografian edota gramatikan. (1,5)	Terminologiaren erabilera onargarria, aberatsagoa izan zitekeen arren. Ortografian eta gramatikan akats batzuk, nahiz eta lana, oro har, egoki idatzita egon. (1)	Terminologiaren erabilera sarri desegokia da eta akats ugari ortografian eta gramatikan. (0)
Ordena, koherentzia eta logika, ideien aurkezpena	Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira, argumentazio koherentez. Aurkibidearen eta epigrafeen erabilera zuzena. Atal teorikoa, jolasak eta azalpenak ondo lotuta daude (2)	Ideiak modu sendoan azaltzen dira lan osoan zehar, nahiz eta hobetu daitekeen. Aurkibidearen eta ideien garapenaren artean lotura egokia. Atal teorikoaren, jolasen eta azalpenen arteko nahiko lotura nabaritzen da (1,5)	Ordena eta koherentzia lanaren atal batzuetan antzematen den arren, ez da agertzen lan osoan zehar. Aurkibideak hutsuneren bat dauka eta epigrafearen bat falta da. Lotura eskasa dago atal teorikoaren, jolasen eta azalpenen artean (1)	Ideiak modu nahasian azaltzen dira, funtsik gabe eta ordena logiko nahikoa falta da. Lan nahasia eta astuna da jarraitzeko. Aurkibidea ez dator bat ondorengo lanarekin eta akats asko dago. Ez dago loturarik atal teorikoaren, jolasen eta azalpenen artean (0)
Sakontasun zientifikoa	Ikuspegi berria eta sortzailea aurkezten du, arrazoibidean heldutasuna, gaiaren ulermen sakona eta taldekideen arteko eztabaida sakona erakutsiz. Hausnarketa kritikoa eta datu objetiboetan oinarrituta. Sakontasunez azaltzen da nola landuko diren edukiak. Jolasen hautaketa eta aurkeztutako ideiak ondo justifikatzen dira (4,5)	Gaiaren ulermen egokia eta sintesi ahalmena, kritikoagoa eta sortzaileagoa izan zitekeen arren. Nahiko azaltzen da nola landuko diren edukiak. Esfortzua nabaritzen da jolasen hautaketa eta ideiak ondo justifikatzeko (3,3)	Gaiaren ulermen onargarria eta oinarritzko erreferentzia batzuetan bermatuta. Ez du kritikarako aparteko ahalmenik erakusten. Oso gutxi azaltzen da nola landuko diren edukiak. Azaletik azaltzen dira jolasen hautaketa eta aurkeztutako ideiak (2,75)	Gaiaren ulermen eskasa, Batere berritzailea ez den ikuspegi bat aurkezten du eta erreferentzia desegokiak. Ez da azaltzen nola landuko diren edukiak. Jolasen hautaketa eta aurkeztutako ideiak ez dira justifikatzen(0)
Informazio iturrien erabilera	Informazio iturri akademikoaren erabilera bikaina, planteatutako oinarriak sostengatzeko. Aipu eta erreferentzia guztiak ondo txertatzen dira APA arauak errespetatuz. (1,5)	Ikuspegi gehienak informazio iturri akademikoekin sostengatzen dira. Aipu eta erreferentzia gehien- gehienak zuzen txertatzen dira. (0,7)	Ikuspegi batzuk ez dira sostengatzen informazio iturri akademikoekin. Aipu eta erreferentzia gehienak zuzen txertatzen dira. (0,25)	Informazio iturri akademikoak ez dira erabiltzen, edo oso gutxi erabiltzen dira, azaldutako puntuak sostengatzeko. Aipu edo erreferentzietan akats nabarmenak APA arauen

				arabera. (0)
Puntuazioa	10	7	5	0